

Atutxa eta Mugertza Urrezko Aizkolarien Binakako txapelkunak

10. orrialdea

Laburbira martiaren 11 eta 12an

Euskaltzaleen Topaguneak Laburbira film laburren hamahirugarren edizioa abiatu dau. Gurean, Areatzan eta Igorren proiektuak dira film laburrak. Martiaren 11n, 20:00etan Igorreko Lasarte Aretan eta 12an, 19:00etan Areatzan, Udal Aretan. Zertu Kultur Elkartearen eskutik eta Areatza eta Igorreko Udalen laguntzeagaz antolatuta dira emonaldiok. **12. orrialdea**



Emoitzak onak arratiarrak Munduko Sokatira Txapelketan

11. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

247

2016ko martiaren 1a
hamabostekaria
www.begitu.org

Martiaren 8aren inguruan ekitaldi ugari gurean



Aurrekoa aitzu barik, aurrera begira jarri dira Arratiako feministak. Izan be, andra alkarteak, talde feministak, Udalak eta AUMko Bardintasun Zerbitzua Arratian, Andren Jabekuntza Eskolea sortzeko beharrea dagoz. Eta horren barri emoteko aprobetxau gura dabe martiaren 8a.

Arratian eta Zeberion, ekintzaz betetako aste biko egitarauak osatu dabez andra taldeak. Arratia maila konzentrazioa egongo da Igorren Andren Nazinoarteko Egunean eta egun bi lehenago, Arratiako Andren VI. Mendi Martxea izango da. Herri guztietan, andren memoria eta egoera jasoten daben ekintza kulturalak egongo dira: liburu aurkezpenak, erakusketak, filmak, antzerkia...

Zeberion be, berbaldiak, zinea eta afaria egingo dabe bertako andrak martiaren 8a ospatuteko. **8. eta 9. orrialdeak**

Txikonek Nanga Parbateko tontorra egitea lortu dau



Alex Txikon, Ali Sadpara eta Simone Moro izan dira neguan lehenengoz Nanga Parbateko tontorra zapaldu dabenak. Zezeilaren 26an izan zan. Eurekaz Tamara Lunger joian baina tontorretik sano distantzia gitxira geratu zan nekeak jota.

Bidea uste baino gogorragoa zan eta uste baino izoztuago egoan, baina lemoaztarrak eta beste sokakide bik lortu eben espedizioaren helburua. Hurrengo egunean heldu ziran Beheko Kanpalekura, nekatuta baina ondo. **10. orrialdea**

ARRATIA

TTIP Ez kanpainea



TTIPari ez esateko Bediatik Zeanurirainoko bizikleta martxea antolatu dabe Arratiako hainbat eragilek martiaren 12an. Bazkaria Kiñu Gaztetxean izango da eta ostean, akordio hau zer dan eta zelango eragina daukan azalduteko hiru dokumental eskeiniko ditue. Zer da TTIPa, TTIP 2035: Una odisea para las mujeres eta TTIP: El campo cerrado por defunción dira dokumentalok. **5. orrialdea**

DIMA

Sakura, Japoniako saria jaso dau Garena Axpe Goikoako txakolinak

Axpe Goikoa jatetxeko Garena txakolina, Sakura Japoniako andren ardoaren urre bikotxa saria jaso dau. Sariketara munduko 35 herrialdetako 3.543 ardo aurkeztu dira. Horreetatik 180k jaso dabe urrezko domina bikotxa, saririk handiena.

Garena txakolinak Axpe Goikoa jatetxea inguratzen dauan mahastian dauka jatorria, eta puntako teknologia erabiliz egiten dabe. **6. orrialdea**



IGORRE

Errotondea egiteko lanak hastear dagoz

Igorreko sarrerearen itxurea eta funtzionaltasuna hobetuko dabezan lanak, aprilan hasi eta urrietan amaitzea espero dau Beinat Anzola Igorreko alkateak. Dimarantzako bidekurutzean errotondea egingo dabe, eta semaforoa eta lur azpiko pasabidea kenduko ditue. Lanokaz, autobusen geralekua, gasolindegiko hegala, Dimarantzako zubia eta eleizara arteko bidea barriztuko ditue. Gainera, 105 inguruko itxureagaz integrauko da eremu osoa. Lanok 609.000 euro inguruko kostua izango dabe. **7. orrialdea**



ARRATIA ZURI-BALTZEAN

DIMOZTAR BAT BI BIDER BILBOKO ALKATE. SANTIAGO MARIA INGUNZA ZAMAKOLA (1787-1869) (I)

Euskal Herriko historian oso ezagunak dira zamakolatarrak, Simon Bernardo eta Juan Antonio, bata politikoa izateagaitik ospetsua, bestea, aldiz, historia-gile eta folklorealetasunagaitik. Aurrekoen arretetako bat, Maria Bautista Zamakola, Migel Ingunza Rementerriagaz ezkondu zan eta euren seme-alaben artean egoan Santiago Maria, Diman jaiotakoa. Bere lehenengo urteez ez dogu barri zehatzik, batzuek esaten dabe bere osaba Simon Bernardogaz (1759-1809) ibilten zala bajeetan. Bere ama, 1825ean, 83 urte ebazala, Diman bizi zan Plazako Etxe Nagusian, Tomas Ingunza izeneko eskribaua zan beste seme bategaz.



Areatzako zubia eta Abandoko geltokia Ingunzaren atzen urteetan.

Ordurako, gure Santiago Maria, Juana Bautista Libarona Artaza Gorliztarragaz ezkondu eta egoan 1820tik, eta alaba bi eukazan,

Juana Jazinta (1821-1907), Gorlizen jaiola, eta Maria Eulalia (1822-1902), Bilbon jaiola, Hirurteko Konstituzionalaren garaian



Santiago Maria Ingunza Zamakola

beraz. Hurrengo urteetan, Bilbon, Agustina (1829-1903) eta Migel (1837-1891), azkena eta mutil bakarra, jaiola ziran.

Negozio munduan Jose Antonio Ybarra eta J.B. Libaronaagaz ibili zan, goi mailako burgesia liberal moderaduaren inguruetan. Gainera, 1833ko Gernikako Batzar

Nagusietan, Dimako ordezkaria izan zan. Urte honetan bertan, Fernando VII.a hil zanean, Lehen Karlistar Gerrea hasi zan. Bilbotar aberatsak liberalen alde egon ziran eta euren artean Santiago Maria bera. Bizkaitar gehienak landa eremuetan bizi ziran eta Karlisten alde agertu ziran. 1839an Gerrea amaitu zanean Bilbaino Elkarte fundau eben Bilboko goi mailako aberatsak eta alkate honetan hasikerako bazkideen artean agertzen da 22 zenbakiagaz beste 133 bazkideren artean Santiago Maria Ingunza. Ez hori bakarrik, 1840an eta 1849an Plaza Barriko Bilbaino Elkarte lehendakaria bi bider izan zan.

Gure dimoztarra 1847an Bilboko alkate izentau eben. Urte haretan Bilboko "Colegio Vizcaya" zana, bigarren mailako irakaskuntzarako erabilia, "Bizkaiko Institutoa" bihurtu zan Belaunzaran arkitektoak egindako eraikuntza dotorean.

Iñaki Esparza

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Zezeilaren 29tik martiaren 6ra

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7

Tel.: 94 631 73 11

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Martiazen 7tik 13ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33

Tel.: 94 673 70 54

22:00etatik 09:00etara

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.

Martiazen 14tik 20ra

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15

Tel.: 94 673 93 22

22:00etatik 09:00etara

Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Lucía Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua

22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jai egunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era

orduro.

Jai egunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara

30 minuturo, azkenengo 22:15ean

Galdakaoraino.

Jai egunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jai egunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Jai egunetan: 08:45etik 20:45era bi ordu behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era

orduro.

Jai egunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jai egunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jai egunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jai egunetan ez dago

zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Arrigorriaga

Arteatik urteerak lanegun eta zapatuetan

06:55ean eta 13:55ean.

Jai egunetan ez dago zerbitzurik ez.

Zeberio-Arrigorriaga

Lanegun eta zapatuetan 07:10, 08:10, 09:10,

11:10, 14:10, 15:10, 16:10, 18:10, 19:10, 20:10

Jai egunetan 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriaga-Zeberio-Artea

Arrigorriagatik 12:40ean urtetan dan

zerbitzua Arteaoraino heltzen da lanegun eta

zapatuetan.

Jai egunetan ez dago zerbitzurik.

Arrigorriaga-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan, 07:40, 08:40, 10:40,

12:40, 14:40, 15:40, 17:40, 18:40, 19:40, 20:40.

Jai egunetan, 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union* 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandioak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jai egunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau

eta Otxandioak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jai egunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarizaga.

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Erredakzino taldea: Ainhoa Duñabeitia eta Irati Urien.

Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga.

Publizidatea: Iñigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Marta Rodríguez, Pablo Rodríguez eta Rut Rodríguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Esti Olibares, Igor Perez eta Azibar Sagarna (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tirada: 7.000 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

Ale kopurua 7.000 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa

Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

ZEURE BERBEA

Parte hartzea Igorren

Joseba Ipiñazar alkate, euskerearen kale erabilerearen neurketea egin eta emoitza eskasen ondorioz, erabaki barrizalea hartu zan: era parte hartzailean egitea euske-rea bultzatzeko plana.

250 igorreztarrek Euskera Planaren diseinuan parte hartu genduan. Datu horregaz bakarrik prozesu arrakastatsua izan zala pentsau daiegegu. Ba, ez da holan!

Parte Hartuz da UPV-EHUKo Politika eta Administrazio Zientzia Saileko Ikerkuntza Taldea. Euren aburuz, parte hartze prozesu batek kalidadekoa izateko ezinbestean izan behar dauz ezaugarri bi:

- 1.- Prozesuan parte hartu dagiela:
 - Udal langileak.
 - Udal ordezkari politikoak.
 - Herritarrak.
 - Herriko alkarte eta eragileetako ordezkariak.
 - Aditua, prozesua bideratu eta erretzuko dauana.

2.- Prozesuan hurrengo 4 pausuk emotea:

- Informazioa danon eskura eta ulerterreza.
- Eztabaida soziala egitea.
- Ebatziak prozesuan esku hartutakoan artean adostea.
- Ebatziak gauzatzea

Ezaugarri bi edo elementu horreek kontuan izanda, orain 14 urte hasitako Euskera Planaren prozesua kalidadekoa eta ona izan zala esan daiegegu? Bai, holan izan zan!

Ebatzi bat era zabalean herritarrak hartzeagaitik udal bat ez da demokratikoagoa -hori anekdota bat da-. Demokratikoa bihurtzen da ebatziak hartzeako modu hori sistematizetan danean; hau da, udal funtzionamentuan txertatzen danean, eta ebatzi guztietara zabaldu (aurreko baldintzak beteta). Benetan, kultura politikoa parte hartzaile egiten danean.

Bidea orain dala urte asko markau zan, baina oraindino bide luze-luzea dago egiteko.

GALDER OLIBARES

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, berrik eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Sein



Adin edo edade txikiko mutikotxoari edo neskatotxoari, ume gazteari azken batean, esaten jake sein (señe, agoskatuta); baita be, etxeko seme-alaben artean, umetxiki edo txikerrena danari. Batuaz, haur edo ume da. Esangura adierazkorra be badauka: laztana berbearen orde erabilten da umeen berbetean. Gaur egun, umetxuen jagoleari deituteko "kanguro" berbea entzuten da erruz, gure "seintzain" jatorra baino askoz gehiago.

ERETXIA

Gure zilborretik harago

Laster da Martiaren 8a gurean, eta urtero legez, hamaika aldarrikapen ugari-tuko dira: lan eremuan andrak bizi beharreko prekarietatea, andren erabagiteko eskubideen alde... Egongo da, halanda be, guzti hori gairidituta dagoala dinoanik: gauzak asko aldatu dirala eta ez daukala orain dala urte batzue-tako egoereagaz zerikusirik.

Horreei esango geunskie zilborrari begira egoteari ixteko, eta konturatu daitezala munduko bazter desbardineta andrak sufriduten dabezan bidegabe-riez. Izan be, gurean zein guretik urrun, gizarte desbardinatasunak, gatazkak eta injustiziak desagertu beharrean areagotu egin dira, eta egoera guztietan andrak egoerarik larrienak, muturrekoenak, anke-rrinak bizi dabez.

Gatazka politikoak dirala eta (asko mendebaldeko herrialdeok eraginda, interes geopolitikoak dirala eta), jenteak bere jaioterria itxi behar izan dau: Eritrea, Irak, Afganistan, Siria... Gatazka guz-ti horreetan, andren gorputzak gerra arma legez erabilten dira: bortxaketa masiboak eta siste-matikoak gerra praktika bat dira. Orain dala gitxi, sare sozialetan zabaldu zan Nazino Batuetako soldaduak andrak bortxatu ebeza-la Iraken.

Gatazkak dirala eta, herrialde horreetako milaka lagunek exodoari ekin, eta halabeharrez zeharkatu behar izan ditue, oi-nez gehienak, herrialde guzti horreetatik Europara bitarteko kilometro andanak. Andra askok euren umeakaz ekin deustie bide ezezagunari, seguruenik, Europa-ren ustezko diskurso humanistak esperantza sortuta.

Hasikerako solidaridade adie-razpenak, ankerkeria eta itxikeria bilakatu dira laster. Gatazkak ez dira desagertu, eta, beraz, bizi baldin-tza jasanekin bizi behar ditue; Europar Batasunak, aldiz, atek zarratu deustez, entzungor, itsu

NOKA

Arratiako Talde Feminista

eta mutu milaka personen sufrim-entuaren aurrean. Gure Europa humanista. Konfliktu honetan be, andren kontrako indarkeria zeha-tzak gertatu dira.

Nazinoarteko Amnistia erakun-deak ezetutera emon eban urtai-lean andra errefujiaduak, helduak zein adin-txikikoak sufridutako eraso fisikoak, sexu jazarpenak eta esplotazio egoerak. GKE-ak (Gobernu Kanpoko Erakunde) jasotako testigantzen arabera, erasoak igarotako herrialde guztietan gertatu dira. Erasoak gauzatu ditue bai eurakaz batera transitoan egozan gizonetakoak, baina baita be bai, euren segur-tasunaren arduradunak ziran gi-zonetakoak be.

Zelako oihartzuna izan dabe gertaera horreek guztiak? Zelako mobilizazioak egon dira? Andren kontrako eraso sistematikoak ger-tatzen dabiz, eta Europak ez dau bermatu inondik inora be bere lurraldeetatik igarotzen diranen segurtasuna. Gertaerak oso larriak dira, baina ez dabe izan Coloniako gertaeren besteko harrabotsa: ez da komunikabideetan azaldu, ez dira sortu moltso bat eretxi artiku-lu, bazkalosteko solasaldi... Akaso, ohikotzat joten dira gatazketako andren kontrako erasoak? Gerre-tako "albo kalteak" gara?

2016ko Martiak 8 honetako gure aldarria personen arteko edozein esplotazio, jerarkizazi-no, edota salbuespen egoerak desagerrazotera bideratu gura dogu. Androk munduan bizi doguzan indarkeria egoeren aurrean begiak zabaldu behar doguz, nazinoarteko solidaridadea in-dartu eta mobilizau. Horregaitik, gure atxikimendua adierazo gura deustagu "Ongi etorri, errefuxia-tuak" ekimenari eta dei egiten deustegu Arratiako herritar guztiai hemendik aurrera sortuko diran ekimenetara batu daitezala. Infor-mazio gehiago: <http://bizkaia.ongietorrierrefuxiatuak.info/>. Guz-tion indarra ezinbestekoa izango dalako, mundu hobe baterako.

LUMATUTEN



**JUAN MANUEL
ETXEBARRIA**

Marti-kakatsu eta aprila

Gure Gorbealdean pastore asko egoan interan, aiko zer pasau jakon euretariko bateri. Erronka zalea izan be eta denporeagaz be derrigor sartu behar. Ardiak barrutietara eroateko adiagaz egoan, baina negua, berez be luze egiten danez, inoz baino luzeago egiten jabilkon. Aprilean sartuz batera martiari kalendariara begiratu eta burlazar hasi jakon esanaz: "Marti-kakatsu, marti-kakatsu; aprilean sartu natxatu"; esatea lez, ez daukatsut bildurrik behin apileraz gero denporeak onera egiten dau eta ardi-errebainuak konke barik ibiliko dira errekek pasakeran be.

Horretara, martiari bekokia ilundu egin jakon eta pastore horrek bereagaz urten ez egiteko, badinotso aprilari:

-Hi, egun bat emongo deustak?

-Hoba ez, emongo ez deuat ba? Egun bat goiti-beheti izango nok eta eutso. Zertarako behar

dok ba?

-Aiko, burlazar hasi jatak Gorbeialdeko pastore harro bat eta harexeri eskarmentu bat emoteko.

Ene orduan! Zeruan hodei-torre zuriak agertu ziran eta apurka-apurka zeru guztia baltzitu, inizitu eta trumoi-hotsagaz batera. Euriak goian-behean eragoion, bota aha-lean eragon be, eta esan leikean zeruak lurrera jausi behar ebala. Ekaitz eta afruntu haretan, ha pastore harroa, bere ardiak pilatuten hasi zan txistu-hotsean eta ardi-txakurrari axaxa-gedarrez. Baina txabolara joateko erreka bat pasau behar eban eta urak handi etozanez, ardiak guztiak urak eroan eutsazan eta danak ito. Halan eta be, atzeratuagotik etorrenez, aharittoa geratu jakon bizirik eta ha be ito ez egiteko, lepoan hartu eban. Pastorea bera be sartu egin zan errekan baina urak ia samaraino eukazanean, lepoko aharittoa estutu egin jakon eta estukuran topeka egin eutsan pastoreari betondoan eta begi bata gauzeztandu. Pastore harroari kendu jakozan bai, eta ondo kendu be, barriro burlazar ekiteko gogoak.

"Marti-kakatsu", "zozomikote" izenagaz be ezagutzen da beste herri batzuetan eta martiaren azken eguna/k eta aprilaren lehenengoa/k izaten dira batean bestean. Gure kasuan, Usansoloko Artetan jaso nebanez, egun bat eskatu eutsan martiak aprilari eta horregaitik esaten da martiak hogeta hamaika barik hogeta hamabi egun daukazala. Horixe pasau jakon hari pastore fanfarroari. Harrokeriakaz kontuz! Binke!

ZERTZEAN



ARITZ ZUBIATE

31 ordu

Zezeilaren 19a. Bariku gaua, 10etan hartzean dogu autobusa. Dima, Zeanuri eta Igorreko jentea. Lemoan eta Zornotzan lehenengo geldialdia. Pankartak, Zantantzarrak, alkartasun ikurrak, jana eta edana... Eta umorea.

Gero Gasteizerantza. Lopidanako atsedengunean Bergarakoakaz alkartu. Musika aparatua, kitarrea, mikroak eta generadorea. Autobusak matxura txikia. Geldialdia beste bat etorri arte. Bagoaz aurrea, gaua Gaztelako lautadetan. Autopista kontrako kafetegiak eta begi lokartuak. Geldialdietan, beste autobus batzukaz egiten dogu topo dispersinoaren lautadetan.

Gurea da bidaiarik luzeena (1.083 kilometro), guri tokatu jaku Algeciraseraingo heltzea. Estatu espainoleko kartzelak dira helburua, eta Frantses estaduko Rennesekoa. Bertan dau Lorentxa Gimón, martiaren 1ean askatasuna lortuko dauan preso

gaixoa. Bat gitxiago. Ondino, 400etik gora gelditzen dira!

Zezeilaren 20ko eguerdian heltzean gara Algeciraseko kartzela atarira. "Txapelberdeak" dagoz han. Andaluziar solidarioak be gure zain. Bandera zuri-berdeak izar gorriagaz. Elkartasun internazionalista. Bisita eukien familiarrak ateraten dira. Txaloak eta oihuak. Ikurriñak eta dispersinoaren kontrako ikurrak ateraten doguz, Arrano Beltza eta Zantantzarrak, trikitixea eta bertsoa, "Maite zaituztegu", Lemoako aizkolaria kateak mozten. Emozinoa.

Zapatuko 15:00ak dira. Bueltan gatoz Euskal Herria. Beste 1.083 kilometro. Nekea handiagoa da baina bagatoz apurka-apurka. Zapatu goizaldean heltzean gara. Herriz herri jentea ixteko geldialdiak egin eta goizaldeko 05:00etan Igorrera. 31 ordu-tako biajea, eta bi berbatako laburpena, "presoak etxera"

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eremuan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezkerro, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Zorionak Dima! Alkarregaz Gure Esku Dagok Dimako herriari bihotzez eskerrak emon gura deustaz asteburu honetan, (zezeilak 26, 27 eta 28) luzatutako erronka barriari emondako erantzunagaitik. Bariku arrastian hasi eta domekara bitartean, 200 herritarretik gora hurbildu ziran alkarteak herriko plazan daukan egoitzara, euren sinadureagaz datorren udabarrian ospatuko dan galdeketea babestuteko. Eta erabakitzeko eskubidearen aldeko ekintzak gure herrian hasi ziranetik bezala, oraingoan be, dimoztarrok proiektua aurrera eroateko beharrezko zilegatasuna lortu dogu. Eskerrik asko dano!

Hurrengo erronkea itauna adostea da. Eta zuk, ze galdera proposatuko zeunke? Helarazo zuon erantzunak eta danon artean ebatziko dogu gure herriarentzat egokiena dana.

Desbardinen artean bidea egiteko unea heldu da.

Alkarregaz Gure Esku Dago



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com

Zugaitik BEGITUten dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com

Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre
Tfnoa: 94 631 80 04

24h
EGUNEKO
OGIA
vending pan
IGORRE
Lehendakari Agirre

ZEBERIO

Gaztetxoan arteko hartu-emonak sustatzeko, Gazte lokala zabalduko dabe



Zeberioko "Hogarra".

Erredakzinoa

Zeberioko Udalak, gazteakaz eta gurasoakaz lankidetzan, "Hogarra" izeneko lokala ipini dau martxan 11 urtetik 16 urtera bitarteko gazteentzat. Astegoienetan egongo da zabalik, barikutik domekara arte. Gazteak ondo pasetako eta euren arteko hartu-emonak sustatuteko espazioa izateko helburuagaz sortu da. Izena martiaren 20ra arte emon daiteke.

Lokal hau aspalditik erabili izan dabe Zeberion ekintzak antolatuteko, baina orain udalak gazteai lekua eta programazioa eskeini gura deutse. 50 gazte inguruk daukie lokala erabiltzeko aukerea. "Uda ostean, udala gazte eta gurasoakaz hasi zan batzarrak egiten, lokalaren erabilerarako

arautegi bat egiteko. Kudeaketea udalak egiten dau gurasoen arduareagaz" azaldu deutso BEGITURI Unai Larrabide zinegotziak.

Lokalak hainbat gune ditu ekintza desbardineterako: irakurteko gunea, kirol eta jolasak egitekoa, mahai jolasen eta eraikuntza gunea eta adierazpen askerako gunea, hain zuzen be.

Ordutegia

Hogarra, barikuetan, 17:00etatik 23:00etara; zapatuetan be 17:00etatik 23:00etara eta domeketan, 17:00etatik 21:00etara egongo da zabalik. Barikuetan hezitzailea egongo da eta programazioa landuko da. Proposatzen dan metodologia "aktiboa, sozializatzailea, parte-hartzailea eta euskalduna" da Larrabideren arabera.

ARRATIA

Mobilizazinoak Arratian TTIParen kontra

Igitie, Noka, Igorre Bizirik, Karabie Gazteak, Kiñu Gazteak eta Fracking Ez Arratiak, Bediatik Zeanurirainoko bizikleta martxea antolatu dabe martiaren 12rako, Merkataritza eta Inbersino Akordio Transatlantikoaren kontra mobilizetako (Transatlantic Trade and Investment Partnership, TTIP).

Erredakzinoa

Ondoren, Kiñu Gaztetxean bazkaldu eta akordioaren gaineko hiru bideo labur eskeiniko ditue.

TTIParen kontrako bizikleta martxea Bediatik abiatuko da 10:00etan eta Lemoa, Dima, Igorre, Arantzazu, Artea eta Areatzatik pasau ostean, Zeanurira aileguko da 13:30ak aldera. Han, buelta emon eta partaideak Igorrera joango dira Kiñu Gaztetxean bazkaltzeko. Bazkarian izena emoteko, WhatsApp edo SMS bat bialdu behar da 680 937 875 telefonora.

Akordioaren eraginaren barri

Bazkalostean, hiru bideo ikusteko aukerea egongo da: *Zer da TTIPa*, *TTIP 2035: Una odisea para las mujeres* eta *TTIP: El campo cerrado por defunción* dokumental laburrak, hain zuzen be. Mobilizazio eguna jaigiroan amaituteko, Kantu Bingoa egongo da Gaztetxean eta poteoa herrian zehar.

"Igitiek TTIPari buruzko berbal-dia antolatu eban Igorren abenduaren 10ean, eta ikusita gai honen inguruan ezjakintasuna zala nagusi eta akordio honek eragin oso larria daukala maila sozialean, zein ingurune politiko eta ekonomikoan, ebatzi genduan eskualdeko kolektibo sozialai deia luzatzea TTIPren kontrako mobilizazinoak antolatzeko Arratia mailan" azaldu deutso BEGITURI Gonzalo Uribe Igitiekoak.

Martiaren 12an, Arratian bakarrik ez, Euskal Herriko hainbat lekutan egingo dira mobilizazinoak. Egun hori aukeratu da, 1986ko martiaren 13an Euskadik erreferendun bidez NATOrri ezetz esan eutsalako. "Akordio militar horren parekoa da TTIPa baina maila ekonomikoan" dino Uribek.

TTIP EZ!
NATO EKONOMIKOARI EZ!

MARTXOAK 12
BIZIKLETA MARTXA

10:00h 10:30h 11:15h 12:00h 12:15h 13:00h 13:00h 13:30h 14:30h
BEDIA LEMOA DIMA IGORRE ARANTZAZU ARTEA AREATZA ZEANURIRAINO HERRIA

KIÑU GAZTETXEAN

15:00h Bazkaria: dilizta jana (44)
Apuntatu whatsapp/SMS bidez: 695788740

16:30h Bideo emanaldia:
- Zer da TTIP-a? ¿Qué es el TTIP? (4)
- TTIP 2035: odisea para las mujeres (10)
- TTIP: el campo cerrado por defunción (15)

17:30h Kantu-bingoa

19:00h Poteoa

herri subirauren alde!!

ANTOLATZAZALEAK:
NOKA
KARABIE
KIÑU
IGORRE BIZIRIK
IGITIE
FRACKING EZ ARRATIA

Eguraldi txarragaz plan alternatiboa. Deitu: 680 937875

Arratia
ubide eta zeberioko
euskerea
eta kulturearen alde

Egin zaitez zeu be

Hamabostero
begitu zeure etxean

Eltxean jasoko dozuz zertu kultur Elkarrekin ateratako produktuak.

Hamabostean behin sari itzelen zozketan parte hartuko dozu.

lizen-abizenak:
herria:
Telefonoa:
E-posta:
urteko kuota aukeratu: 35€ 55€ 75€

begitu

ARRATIA

Errefujiaduen aldeko konzentrazioa Igorren



Konzentrazioa.

Erredakzioa

Zezeilaren 27an, Arratiako Eleizeak bat egin eban "Ongi etorri errefuxiatuak" ekimenagaz eta konzentrazioa egin eben Igorreko San Antonio ermitearen aurrean, erakundeai eskatzeko Europan onartutako konpromisoak lehenbailehen beteteko eta persona guztien eskubideak errespetetako.

Ekimenak emondako datuen arabera, munduan 60 milioe persona baino gehiagok iges egin behar izan dabe euren bizilekue-tatik euren bizitzak, osotasuna eta duintasuna babestutako.

Europak 160.000 igeslari onartutako konpromisoa hartu eban, baina azkenean 583 bakarrik hartu ditu. Espainiak 17.000 lagun hartuko ebazala aldarrikatu eban, baina 18 bakarrik heldu dira. "Bigarren Mundu Gerra ezkerotik gertatzen dabilen lekualdatze borxatu hau da sortu dan krisirik handiena, eta horren aurrean Europaren jarkereak ez dau erakusten ez jentetasunik, ez erantzukizunik ez alkartasunik. Igeslariak babesa emotea ez da karidade kontua, Giza Eskubideen Nazinoarteko Itunak biltzean dauan oinarritzko egin-kizuna baino" azaldu eben "Ongi etorri errefuxiatuak" ekimenekoak komunikatu baten. Igorreko konzentrazioan zein Bilboko manifestazio jentetsuan hartu eben parte arratiarrak ekimenagaz bat egiteko.

DIMA

Dimako Garena txakolina Japonian saritu dabe



Axe Goikoako mahastia.

Erredakzioa

Axe Goikoa jatetxeko Garena txakolina, Sakura Japoniako andren ardoaren urre bikotxa saria jaso dau. Sariketara munduko 35 herrialdeetako 3.543 ardo aurkeztu dira. Horreetatik 180k jaso dabe urrezko domina bikotxa, saririk handiena. Sakura sariak nazinoarteko eta prestigiodun sariak dira eta Japoniako ardoaren merka-

duan sartzeako aukerea emoten dabe.

Gorka Izagirrereren upeltegiko Garena txakolinak Axe Goikoa jatetxea inguratzen dauan mahastian dauka jatorria, eta puntako teknologia erabiliz egiten da egileen arabera. Mahastia, Gorbeia eta Urkiola parke naturalen mugan dago eta hainbat sari izan ditu; beste batzuen artean, 2014ko Baco Saria eta 2015eko Rotary Club-eko saria.

ARRATIA

Mendian eta herri barruan zugatzak landatzeko egunak

Erredakzioa

Bediako umeak ludotekan, ezkurak landatu ebezan ontzietan zezeilaren 26an, landarea urtetan danean, herriko plazan landatutako asmoz. Igorren Zugatz Eguna aprobetxauko dabe aisialdirako egokitu gura dan lursail baten zugatzak landatutako.

Zugatz Eguna martia aldera ospatuten da, udabarria hur somatuten danean eta eguraldi ona aprobetxatuz eta herri bakotzak aukeratuten dau zein egunetan eta ospatutako modua.

Bedian, zezeila atzenetan zala, umeak Mandoian batutako ezkur autoktonoak landatu ebezan po-teetan, hortik sortutako zugatzak plazan landatzeko. "Ume bakotzak prestau dau bere tiestoa eta ezkurra lurragaz ipini. Gero ureztatu eta listo. Ludotekan itxi eta umeak astero ureztatuko dabez. Garagarriean

tiesto guztiak eroango dira abadea-ren etxera eta han landatuko dira. Hurrengo urtean ondo hasi diranak Bediako plazan sartuko dira" azaldu deuto BEGITURI Anabe Arruabarrena Kultura Teknikariak.

Eguraldiak lagunduten badau, igorreztarak martiaren 6an hartuko dabez Errugbi zelaiaren ingurua eta Bizkaiko etxebizitzaren eremuan zugatzak landatutako. Leku horretan Udalak piknik mahai bi eta zugatz batzuk ipiniko ditu, auzo batzarretan eskatuko gauzatzeko. Zugatz horreetako batzuk, umeak eta nagusiak landatuko dabez.

Areatzan hilaren 12an, Diman, 15ean eta Zeanurin 18an ospatu gura dabe Zugatz Eguna. Urtero lez, Zeanuriko eskolako umeak eta irakasleak, basozainaren gidaritza-pean, Saldropon hostozabalak landatzeko asmoa agertu dabe.



ARRATIA

Bizi leiteke WhatsApp barik?

Erredakzioa

Atzenengo bost urteotan eguneroko bizimoduan gertatutako aldaketarik handienetakoa sare sozialen erabilera izan da. Eskuko telefonoak internet daukietatik ikaragarri zabaldu da eta gaur egun ez dago apenas inor WhatsAppik erabilten ez dauanik. WhatsApp barik geratuko bazina, irakurle, zelan eragingo leuke zeure bizimoduan?

eragingo leuke zeure bizimoduan?

a) Lagunakaz eta familiagaz komuniketako modua aldatu beharko neuke.

b) Ez bakarrik familia eta lagunakaz, beharrerako be erabilten dot WhatsAppa, beraz, berau be aldatu beharko neuke.

c) Ez leuke eraginik izango.

Itaunari erantzuteko sartu gure webgunean, www.begitu.org.

Derrigortasun barik, beroketa globala 2°C gradutik gora

Aurreko inkesteari erantzun deustien irakurle guztiak bat etorri dira. Euren ustez, Parisko akordioaren

helburua, hau da, beroketa globala 2°C baino gitxiago izatea, ez da lortuko, behar beste herrialdek ez dabezalako behar beste neurri hartuko derrigortasun barik.



	<p>JB Eguzkiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Lemoa</p>	<p>Ikastola Arratia HI Tel.: 94 673 90 65 Artea</p>	
	<p>Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Dima</p>	<p>Arratia BHI Tel.: 94 673 62 37 Igorre</p>	
	<p>Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Zeberio</p>	<p>Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Areatza</p>	
	<p>Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri</p>	<p>I. Zubizarreta HLHI Tel.: 94 673 60 22 Igorre</p>	

MARTIAK 8

Badator Andren Jabekuntza Eskolea

Arratiako Udalen Mankomunidadeko Bardintasun Zerbitzua, andra alkarteak eta talde feministak beharrez dagoz Andrentzako Jabekuntza Eskolea sortzeako. Hori dala eta, "Badator Jabekuntza Eskola" lemapean ospatuko dabe arratiarrak martiaren 8a, Andren Nazinoarteko Eguna. Arratian eta Zeberion aldarrikapena eta jaia batzean dabezan egitarau oparoak prestatu dabez eta ez dira faltauko konzentrazioak, mendi martxea, berbaldiak, zinea, kontzertuak eta abar.

Erredakzioa

Andrak badaukie zer ospatu Arratian, Andrentzako Jabekuntza Eskolak bardintasunerako tresna eraginkorrek dirala frogatuta dago eta. "Eskolen helburua andren antolaketea eta mobilizazio soziala bultzatzea da, historikoki andrak baztertuta egon diran politika publikoetan eragina izan dagien, eta andrak eurak izan daitezcan andren eta gizonen arteko benetako bardintasun eraginkorra erreibindiketan dabenak euren bizitzako arlo guztietan" abiatu dabela eskolea dino Miren Urresti AUMko Bardintasun Zerbitzuko Teknikariak.

Jabekuntza Eskolea gauzatzeko urtailan hasi ziran beharrez eta 2016-2017 ikasturtean hasiko dau bere ibilbidea. Ikasturtean zehar identitate eta subjektibotasun femeninoaren gaia, feminismoa, beste kultura batzuetako andrakazko alkartasuna, kulturaren definizio barria eta abar, landu gura dabez. "Gaiak askotarikoak dira eta zabaltzen joan daitezke. Arratiako andra eta sektore feminista desbardinetako interesak jasotzen dabez. Adibide batzuk honeexek dira: Egungo feminismoaren eztabaida teorikoa, indarkeria matxistea, autodefensa tailerrak, feminismoaren historia

Euskal Herrian, lan merkadua, zaintza lanak, kultura eta jatorri desbardinetako andren solidaritatea, identitatea, gorputza, emozioak, amodioa, sexualitateak, hizkuntza ez sexistea, asertibiditatea, komunikationaren trebetasunak eta negoziatzaioa, jentaurrean berba egiteko teknikak, teknologia barrien erabilera, eta abar" dino Urrestik.

Eskolan parte hartu gura dauan Udal, Mankomunidade eta alkarte bakotzak ekintza bat aportatu deuto eskoleari, danon artean ikasturteko egitaraua antolatuteko. AUMko Bardintasun Zerbitzuak ekintzak antolatzeko batzarrak antolatuko dauz eta koordinatzaio lana bateratuko dau. Batzarretan udalak eta alkarteak egongo dira, lan-ildoak, gaiak eta ordutegiak zehazteko.

Eskoleak, gainontzeko Jabekuntza Eskolakaz sare lana bultzatuko dau, Bardintasun Zerbitzuko Teknikariaren arabera, "esperientziak, gogoeta eta jakintza alkarregaz trukatzeko, eta baliabideen erabilera eraginkortasun eta probetxu handiagoa aterateko".

Jabekuntza Eskolak

Jabekuntza edo jabetze eskolak udaletako bardintasun arloetan antolatutako proiektuak dira. Hasiarako eskolak mobimentu femi-

nisteari lotutako bardintasun teknikariak bultzatu ebezan. 2003an Basaurin jarri zan abian lehenengo eskolea. Urtebetera, Ermua eta Getxo udalerriak atxikitu ziran ekimenera eta koordinatzaioa abiatu ziran. Urtebete geroago, Ondarria be sarean sartu zan.

Hiru urteko ibilbidea egin ondoren, proiektua erreferente bihurtu zan Euskal Autonomia Erkidegoan. Eta horren adibide da 2007 urtean Gipuzkoan sortutako sarea: Arrasate, Azpeitia, Eibar, Hernani eta Urola Garaia. Bizkaiko eta Gipuzkoako Jabekuntza eskolen sareez gain, beste ahalduzko eskola batzuk be sortu dira: Bizkaian, Elorrio eta Abadiñon, Gipuzkoan Zarautz, Tolosa, Errenteria, Pasaia eta Zumaian eta Araban, Gasteizen.

Martiaren 8aren inguruko ekintzak

Urtero lez, Arratiako andra alkarte, talde feminista, udal eta Mankomunidadeak alkarlanean, herri bakotzeko ekintza bat jasotzen dauan kartel bateratua prestatu dabe eta herri bakotxean be, beste ekintza batzuk antolatu dabez aldarrikapena eta jaia batuz.

Andren Nazinoarteko Eguneko Arratia mailako alkarretaraztea, 19:00etan izango da, Igorreko Kultur Etxe parean.



Igazko konzentrazioaren argazkia.

Arratiako Andren VI. Mendi Martxea Arantzazuko antolatu dau aurtan eta gitxi gorabehera ordu biko ibilbidea izango dau. Plazatik urten eta Arantzazugoitia, Arandui, San Migel Txiki, industrialdea eta Txoriartetik pasau ostean, plazara ailegatu da martxea. Han ondoetoria egingo jakie ibiltariak eta kopautxoak eskeiniko jakie Montetabernan.

Zinea, kontzertuak eta liburu aurkezpenak be egongo dira. Aurrera begira baina andren eskubideak lortzeako egindako ibilbidea gogoan izango dabe arratiarrak. Izan be, badira gizaldi bi, andrak antolatuten hasi ziralako euren eskubideak aldarrikatzeko. Holan, *Gure genealogia feministak. Euskal Herriko Mugimendu Feministaren kronika bat* liburuaren aurkezpena, *Gure andrak memorian* argazki erakusketea eta *Sufragistas* pelikulea ikusteko aukerea egongo da egunotan.

Baina aurtan, etorkizunera begira planteatuta dago martiaren 8a, "Feministok prest" lemapean. Eta Arratian be gure gizarteko erronkai aurre egiteko prest dagozala adierazoko dabe bertoko andra alkarteak, talde feministak eta erakundeak eta horretarako tresnak emoten garrantzia handia izango dau Arratiako Andrentzako Jabekuntza Eskoleak.

Zeberioiko andrak berbaldiak, zinea, andrentzako autodefensa ikastaroa eta andren afaria antolatu dabez Andren Nazinoarteko Egunaren inguruan.

Gainera, beste ekintza batzuen artean, gure eremuko liburutegian andrak idatzitako liburuen erakusketa egongo dira eta adierazpen instituzionalak be egingo dira andra eta gizonen arteko bardintasunaren aldeko konzientzia biztuteko.

gietan andrak idatzitako liburuen erakusketa egongo dira eta adierazpen instituzionalak be egingo dira andra eta gizonen arteko bardintasunaren aldeko konzientzia biztuteko.

Martiak 3, eguna

19:00etan, *Gure genealogia feministak. Euskal Herriko Mugimendu Feministaren kronika bat* liburuaren aurkezpena Emagin taldearen eskutik. Zeanuriko Kultur Etxean.

Martiak 4, barikua

19:00etan, *Gure andrak memorian* argazki erakusketearen inaugurazioa Zeanuriko Kultur Etxean. Erakusketea hilaren 12ra arte. Erakusketea zapatu eta domeketan zabalik goiz eta arrastiz eta asteburuan 17:00etatik 19:00etara.

19:30ean, Munduko Emakumeak alkarteko berbaldia. Zeberioiko Plazako Ermitan.

22:30ean, Izare, poesia akustikoa. Eta 23:30ean Vinagre de moderna taldearen kontzertua Lemoako Karabie Gaztetxean.

Martiak 5, zapatua

11:00etatik 12:30era, andrentzako autodefensa tailerra Lemoako Kiroldegian.

20:00etan, Macho Maris taldeak *Ezin gizonago diren Markus eta Juanmanoloren showa*. Igorreko Lasarte Aretoa.

Martiak 6, domeka

10:00etan, Arratiako Andren VI. Mendi Ibilaldia. Arantzazuko

ARRATIAKO EGITARAUA

Martxoak 3 Zeanuri, 19:00etan "Gure Genealogia Feministak" liburuaren aurkezpena.

Martxoak 4 Lemoan, 22:30etan, Nesken rock kontzertua. Gaztetxean

Martxoak 5 Igorren, 20:00etan, "Macho Maris" antzerkia. Lasarte Aretoa

Martxoak 7 eta 8 Zeanuri, 12:00etan (guztietan) Eskolen

Martxoak 8 Arrasatean, 12:00etan, konzentrazioa

Martxoak 10 Arrasatean, 19:00etan, labarretako. Udaletxoan aretoa

Martxoak 11 Berdian, 18:30etan, Zine-foruma Udaletxoan

Martxoak 11 Dimean, 19:30etan, "Gure eta burua" antzerkia. Gaztetxean.

Martxoak 13 Arrasatean, 17:00etan, Arrasateko Emakumeen historiari buruzko dokumentala Kultur Etxean.

Apirilaren 10M. Emakumeentzako jabekuntza eskola buruzko jardunaldia.

MARTXOAK 8 ANDREN MENDI MARTXA ARANTZAZUN 10:00ETAN PLAZAN.

MARTXOAK 8 KONZENTRAZIOA IGORREN 19:00ETAN KULTUR ETXEN PARKEAN.

Arratiako Udalen, emakume elkarte eta talde feministen Sarea



plazan. Amaieran ondoetorria plazan eta kopautxo Montero jatetxean.

11:30etik 13:30era, Andrenzako Autodefensa ikastaroa. Zeberriko eskola zaharrean

19:30ean, zinea *El futuro es mujer*. Zeberriko Plazako Ermitan.

Martia 7, astelehena

12:00etan, ipuin kontalariak Zea-nuriko eskolan.

18:00etan, Yolanda Arrietaren berbaldea "Argiaren alaba: txango bat denboran". Lemoako Udal liburutegian.

Martia 8, martitzena

12:00etan, ipuin kontalariak Zea-nuriko eskolan.

12:00etan, konzentrazioa Arantzazun

17:00etan, *Dima eta bardintzuna* argazki proiektzioa Dimako Liburutegian; 17:00etan, Zea-nuriko plazako zugatzak apaindu andren nazinoarteko egunagaz lotutako esaldi, olerki, berba eta abarrekaz.

18:00etan konzentrazioa Ar-teako plazan. 19:00etan, Emakumeen Nazinoarteko Eguneko Arratia mailako konzentrazioa

Igorren.

21:00etan, andren afaria Zeberriko Batzokian.

Martia 10, eguna

17:00etan, Bilboko museo etnografikora bisitea. Arantzazutik.

19:00etan, film laburrak eta solasaldia. *Cordelias* (zuz.: Gracia Querejeta) eta *Y otro año perdices* (zu.: Marta Díaz de Lope). Areatzako Udaletxean.

Austarrak antolatuta, "Indarkeria matxista lantzen" berbaldea, Zeberriko Plazako Ermitan.

Martia 11, barikua

18:30ean, zineforuma Bediako ludotekan.

19:30ean, *Gure etxe bakarra* antzerkia Dimako Gaztetxean.

Martia 12, zapatua

19:30ean, *Egun on, Printzesa!* Film laburraren emonaldia Zeberri.

Martia 13, domekea

17:00etan, Areatzako Emakumeen Foroak egindako Areatzako andren memoria jasoten dauan dokumentala ikusi eta ostean, bertan agertzen diran batzuk solasaldia Arteako Kultur Etxean.

Aprilan Andren Jabekuntza Eskoleari buruzko jardunaldia antolatuko dau AUMko Bardintasun Zerbitzuak

Miren Urresti Azpiri AUMko Bardintasun Zerbitzuko Teknikariak, Andren

Jabekuntza Eskoleak orain arte egindako ibilbidearen barri emon deutso BEGITURI.



Aratian Emakumeentzako Jabekuntza Eskolea sortzeako beharrean zabilze urtailetik. Zer egin dozue orain arte? Nortzuek hartzean dabe parte proiektuan?

Urteak daroez Arratiako Udalak, andra alkar-teak eta talde feministak jabekuntza tailerrak eta ikastaroak antolatzen. Aurten pentsau dogu momentu aproposa izan daitekela Jabekuntza Eskolea martxan ipinteko, egindako eta egiten dan guztia kontuan izan eta danon artean, Eskolea gauzatzen hastea, gurean be Eskolea martxan ipintea. Urte hasikeran, Bardintasun Zerbitzutik Udal eta talde guztiai banan-banan egitasmoa aurkeztu geuntsen eta ondo iruditu jakien. Banakako aurkezpena egin ondoren, martiaren 8a koordinetako

batzarrak erabili doguz egitasmoa taldean aurkeztu eta zehazten hastea. Era berean, aprobetxau dogu martiaren 8ko kanpainaren kartela be "Badator eskola" zabaltzeko, prozesuari hasikerea emoteko.

Zeintzuk izango dira hurrengo pausak?

Hurrengo pausak Eskolea zehaztea izango da. Horretarako, aprilean andren jabekuntzarako eskolai buruzko jardunaldia antolatuko dogu, zuzenean ezetuteko beste eskola batzuetako esperientziak eta daukaguzan zailtazak eta bertan komentetako.

Horregaz batera, hemendik eta bagilera, hilerro batuko gara udalak eta taldeak egitaraua zehazten joateko. Asmoa daukagu udako egitaraua eginda izatea, urri lehenengoan 2016-2017 ikasturtearen aurkezpena egitea eta urri bigarrenean ikastaroak eta tailerrak hastea, urri bigarrenetik eta maiztera.

Non egongo da Jabekuntza Eskolea?

Asmoa da herri eta talde bakotzak ikastaro edo tailer bat aportatzea Eskolara. Lan ildoak zehazten gabiz eta ostean, tailerrak zehaztuko doguz. Kontuan izan behar dogu udal eta talde asko dirala, eta horrek koordinazino handia eskatuko daua. Horretarako egingo doguz antolatuteko eta koordinetako batzarrak, hori guztia zehazten joateko. Eta ikastaroak be lantzean herri batean izango dira, eskola ibiltaria izango da, herri guztietan izango da, baina Arratiako andra guztientzat.

Ze eredu eta zelango funtzionamentua izango dau?

Eredu mistoa izango da, erakundeak eta taldeak hartuko dabelako parte, gainontzeko Jabekuntza Eskola gehienak egiten daben moduan. Orain arte, udalai eta taldeai ondo iruditu jakie eta parte hartzean dabiz.

Sarean be egingo dogu behar, beste jabekuntza eskolakaz batera, ekintzak eta esperientziak partekatze.

Bizkaifisios SLk
bi zentro ditu
Fisioterapia Zentroa Igorre
Elexalde 4
Telefonoa 94 631 55 08
Andra Mari Klinika
Fisioterapia Zentroa
Pontzi Zabala 1 Galdakao
Tel/faxa 94 457 23 64
www.bizkaifisios.com

agoa Ortodontzia
hagin klinika
Implanteak
Estetika
Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia
Bidebarri 1, behea
48140 Igorre-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalejota Zerbaita 101
R.P.S. 31/06

ASESORIA Gorbeialde
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

Kili-Kili Umeen denda
Umeen denda
94 673 63 51
Agirre Lehendakaria 10
Igorre
kilkiligorre@gmail.com

arratiako instalazioak s.l.
Berokuntza - Iturgintza - Gasa
Aireztatzeko sistemak
Aire zurgatze zentralizatua
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak
Igorreko Industrialdea
Fab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igorre Bizkaia

Olaxte OPTIKA ZENTROA
Graduazinoak
Ikusmen terapia
Ikusmen gubitua
Begi tontsinoak
Lentillen adaptazioa
Kiroletarako betaurrekoak
Sebilno Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 657 70 03 olaxteoptika@hotmail.es

MENDIA

Alex Txikon, Ali Sadpara eta Simone Morok lehenengoz egin dabe neguan Nanga Parbateko tontorra

Alex Txikon.

Erredakzioa

Eurakaz joian Tamara Lunger tontoretik metro batzuetara geratu zan nekeak jota.

Bidea, eskalataileak uste baino gogorragoa izan zan eta uste baino izoztuago egoan, baina zezeilaren 26an, 15:37an (Pakistaneko ordua) Alex Txikonek, Ali Sadparak eta Simone Morok neguan Nanga Parbateko tontorra (8.125 m.) zapaltzen eben lehenengoak izatea lortu eben.

Hogeta zortzi urte pasau eta hogeta bederatzi espedizinoak kale egin behar izan dabe horretarako. Hogeta hamargarren honetan gauzatu da lorpena. Lemoztarraren hirugarren saioan.

Tontorra egiteko, normalean bai-

no beranduago urten ziran goizaldeko hotz handia ebitetako. Hori dala eta, nahiko berandu heldu ziran tontorrera eta kanpalekura gaua eginda heldu ziran. Dana dala, hurrengo egunean, arrastiko 16:30ean, Alex Txikonen twiterrak informau eban Behe Kanpalekura ondo heldu zirala espedizinoak laturak.

Ezusteko sokakideak

Espedizinoari ekin eutsienez, Alex Txikonen taldea Ali Sadparak eta Daniele Nardik osotuten eben. Simone Morok eta Tamara Lungerrek barriz, beste bide batetik joateko asmoa eukien. Baina Nardik itxi egin eban espedizino eta beste laurak euren indarrak batzea ebatzi eben, tontorra egitea lortu dauan taldea osotuz.

AZKOREA

Atutxa II.a eta Mugertza II.a Urrezko Aizkolarien Binakako txapeldun

Irati Urien

Aitzol Atutxa II.a eta Ugaitz Mugertza II.ak irabazi dabe Urrezko Aizkolarien Binakako Txapelketea. Bikoteak hirugarrenez lortu dau urrezko txapela. Azpeitiko Izarraitz pelotalekua jentez gainezka egoala, bost izan ziran aizkolariek egin beharreko probak: 45 ontzako enbor bana erlojuaren kontra; 60 ontzako enborra zutunik; 60 ontzako bina enbor bikotekide bakotzak; zutunik eta etzanda: 45 ontzako zutunik eta kanaerdikoa etzanda; eta, amaituteko, txanda libre: lau kanaerdiko eta lau 60 ontzako. Lan danak egiteko 26 minutu eta 5 segundu behar izan ebezan Dima eta Mutrikuko kirolariak. Bigarren Jon

Rekondo eta Ruben Saralegi leizarrak egin eben 26 minutu eta 39 segunduko denporeagaz, eta hirugarren Laurence O'Toole eta Iker Vicentek egin eben 28 minutu eta 2 segunduko denporeagaz.

O'Toole munduko aizkolaririk azkarrena

Laurence O'Toolek irabazi eban Munduko Aizkolaririk Azkarrenaren Txapelketea Tolosako Beotibar pelotalekuan zezeilaren 21ean. Australiarrek egundoko erreztasuna erakutsi eban, saio danak irabazi eban. Atzenez, lau izan ziran finalerako sailkatu ziranak. Iker Vicente nafarrak lortu eban bigarren postua, Aitzol Atutxa dimoztarrak hirugarrena eta Leitzako Jon Rekondok laugarrena.



Mugertza eta Atutxa.

FUTBOLA

Arratiako neskak lidergoa hiru puntura

Ainhoa Dunabeitia

Bigarren postuan dago Arratia 48 puntugaz, hirugarrenakaz bardinduta eta liderrarengandik 3 puntura, atzen honeek atzen neurketea bardindu eta gero. Denporaldi ederra egiten dabiz arratiarrak, atzen neurketa bietan be hiruna puntu eskuratu dabez. Hilaren 21ean etxean jokatu eben Ugaoren kontra eta gol bi egin ebezan; Arratia 2 Ugao 0. Atzen neurketan be garaipena lortu eben arratiarrak, norgehiagoka honetan gol bakarra egin eben. Betiko Neskak 0 Arratia 1. Hurrengo partiduan Oiartzun B taldea eukiko dabe aurrez aurre; martiaren 6an jokatuko dabe Igorreko Urbieta futbol zelaian.

Mutilak barriz atzen neurketa bietan, porrota eta bardinketea lortu dabe, puntu bakarra lortuz. Etxetik kanpo jokatu eben hilaren 21ean Gatikaren aurka, emoitza txarra lortu ebena, Gatika 1 Arratia 0. Atzen neurketan ostera sailkapeneko lehen postuan dagoan Sodupe euki eben aurkari eta bana bardindu eben. Arratia hamabigarren dago 24 puntugaz. Hurrengo norgehiagokea Lekeition izango dabe hilaren 6an.



www.begitu.org

publizitatea
94 631 73 14 eta 649 979 115

Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com



SOKATIREA

Zidarra Badaiotzek, brontze bi Sokarrik

Erredakzioa

Volendam-en (Holanda) jokaturako Munduko Sokatira Txapelketan zidarra lortu eban Badaiotzek 500 kilokoan. Sokarrik brontzea eskuratu eban 560 eta 600 kilokoetan. Arratia eta Zeberioko tiralariak Basque Country selekzioan be tiratu eban eta beste brontzeko hiru domina eskuratu ebezan. Basque Countryko andrazkoak 500 kilokoan eta 540 kilokoan eskuratu eban brontzea Txina eta Taiwan-en ostean. Gizonezkoak hirugarren egin eban 600 kilokoan Eskozia eta Taiwanen atzetik.

Lemoako Ruth Linaza eta Izaskun Atutxak, Badaiotz zein Basque Country moduan hartu eban parte

Munduko Goma gaineko Sokatira Txapelketan. Zeberioko Galder Gobantesek, Sokarrik hartu eban parte 560 eta 600 kilokoetan brontzea eskuratuz. Baita Basque Countryko 600 kilokoan be.



Basque Country taldea Munduko Txapelketan.

Euskal Herriak 13 domina

Euskal Herriko sokatira klubak 8 domina eskuratu ebezan Volendam-en eta Basque Country selekzioak beste bost. Mundu osoko 107 talde neurtu ziran. Besteak beste, Txina, Belgika, Frantzia, Irlanda, Georgia, Suitza, Israel, Italia, Suedia, Herbeherak, Polonia, Ingalaterra, Eskozia, Taiwan, Japonia, Taipei, Makao eta Singapurrek izan ebezan sokatira taldeak.

MOTORRAK



Hasi da Euskal Herriko Txapelketea

Irati Urien

Zezeilaren 14an emon jakon hasikerea aurtengo Euskal Herriko Txapelketeari Cross Country modalidadean. Arratiarrak pozik, honeek izan ziran Nanclares de la Ocan

lortutako postuak: beteranoetan bigarren postuagaz podiumera igon zan Pedro Gorospe, eta igon barik baina hurbil laugarren egin eban Josu Gorospek. Juniorretan seigarren gelditu zan Jon Zuazo igorretarra eta Zeberioko Asier Zugazaga hogeta bederatzigarren. Hurrengo Cross Country norgehiagokea maiatzaren 1ean izango da Vianan; eta Endurori jagokenean, martiaren 6an Zallan egingo da lehenengo motor lasterketea.

begitu

arratia ubide zeberio

ez da debalde



"Albait gehienok apur bat emon daigun gitxi batzuk dana emon ez dagien".

Izan zeu be Begitu-laguna!

FILM LABURRAK

Euskerazko zortzi film
labur ikusteko aukerea
Areatzan eta Igorren

Erredakzioa

Euskaltzaleen Topaguneak Laburbira film laburren hamahirugarren edizioa abiatu dau. Zezeilaren 25etik martiaren 20ra bitartean, 27 herri bisitatu dituzte zirkuituak. Areatzan eta Igorren proiektatu dira film laburrak, martiaren 11n, 20:00etan Lasarte Aretoan Igorren (hasikera baten 18rako egoan iragarrita), eta 12an, 19:00etan Areatzan, Udal Aretoan, Zertu Kultur Elkartearen eskutik eta Areatza eta Igorreko Udalen laguntzaz.

Saio bakotxean zortzi ikusentzunezko labur eskeiniko dira, ordu eta laurden inguruko emonaldietan. Ane Urkiolaren *Zea Bingo*, Iñigo Gaitonen *Erreplika*, Uda Films-en *Jorrai*, Yago Mateoren *Fishura*, Aitor

Gamexoren *Berebizetako bat*, Eriz Alberdiren *Brunilda*, "The Arlotes" Uraitz Soubies-en *Hartz txiki* eta Iker Azkoitiaren *Semeak* dira aurtengoak. Honeek aukeratzeko, Topaguneak kontuan hartu dabezan erispide nagusiak "kalidadea, sortzaile barriak lekua egitea, genero eta gai aniztasuna, lurraldetasuna eta hainbat arlogazko sensibilizazioa sustatzen daben lanak hedatzea" izan dira.

Topagunea eta Zertu

Laburbira, Euskaltzaleen Topaguneak antolatuten dau herriz herriko euskaltzaleen alkarteak alkarlanean; Arratian, Zertu Kultur Elkarteagaz. Zirkuituak euskerazko ikus-entzunezko produkzioa ezte arazo eta herrietako kultur eskeintza aberasteko helburua dauka.

LEHIAKETEAK

Lemoako
V. Narrazino
Lehiaketea

Erredakzioa

Apirilaren 23ra arte bialdu daitezke lanak Lemoako V. Narrazino Lehiaketan parte hartzeako. Hamazortzi urtetik gorakoak hartu leikie parte eta gaia librea da.

Partaide bakotzak narrazino bakarra aurkeztu ahal izango dau eta gehieneko luzeera sei foliokoa izango da. Lanak Lemoako Udaletxean aurkeztu behar dira edo helbide honetara bialdu kultura@lemoa.net. Idazlanak izenburua edo izengoitia bakarrik euki behar dabe, egilea idenfikatu leiken ezelangoz zehetasun barik, datuok kartazal zarratu baten ipini behar dira.

Sariak

Lau sari egongo dira. Lehenengo saria 250 eurokoa da; bigarrena, 150 eurokoa; hirugarrena, 100 eurokoa eta Lemoako lanik onenari 100 euroko saria. Saridun guztiak diplomea jasoko dabe eta maiatzean egingo dan aste kulturean bananduko dira. Saritutako lanak udaleko webgunean argitaratuko dira.

BERTSOLARITZEA

Arratia
kanpoan

Erredakzioa

Zezeilaren 17an hasi zan BBK Sariaketea Igorreko Kultur Etxean. Arratiak Busturialdearen kontra jokatu eban sariaketea lehenengo kanporaketean Arratia Institutuko ikasleen aurrean. Busturialdea izan zan irabazlea, 438,50 puntu ateratzen; Arratiak osteran 336 puntu. Busturialdea finalurrekoetara pasatu da.

Hamazortzi urtera artekoen kategorian, Busturialdekoen taldean Julen Carrion, Beñat Bilbao eta Lurdes Ondaro, eta Arratiako taldean, June Iruamizaga, Paule Corbacho eta Aritz Orue ibili ziran kantuan. Hogeta lau urtera artekoenean, Arratia taldean Lur Ziarusta, Irati Astondoa eta Asier Galarza neurtu ziran, Busturialdeko, Aitor Etxebarriazarraga, Unai Agirre eta Mikel Retolazaren kontra.



ZINEA

Zinegoak jaialdiko
emonaldi bi Igorren

Erredakzioa

Zinegoak Bilboko Gaylesbotrans 13. Nazioarteko Zine eta Arte Eszenikoen Jaialdiak, jaialdira aurkeztutako lanak herrietara zabaltzeko asmoz, Hedapenak izeneko ekimena ipini dau martxan. Igorren parte hartzean dau horretan eta aurtun emonaldi bi egongo dira, martiaren 3an bata eta 10ean bestea. Emonaldiak 20:00etan Igorrenko Lasarte Aretoan izango dira. Hilaren 3an sei film labur proiektatu dira; hurrengo egunean, barriz, *Sangailés Vasara* film luzea.

Hilaren 3an ikusi ahal izango diran film laburrak honek dira: Usue Egiaren *Garelako*, Kepa Errastiren *Aitona mantangorria*, Anne-Claire Jaulin-en *A qui la faute?*, Jake Grafen *Chance*, Carolina de Azevedoren *De que lado me olhas?* eta Kristina Kello-ren *Betty*.

Garelako eta *Aitona mantangorria* euskeraz dira. Gainontzeako jatorrizko bersinoetan emongo dira euskerazko azpitoluak.



Sangailé-ren uda

Martiaren 10ean, *Sangailés Vasara* (*Sangailé-ren uda*) drama erromantikoa egongo da Lasarte Aretoan. Alanté Kavaité zuzendariaren lan hau aukeratu dabe Lituania ordezkatzeko Oscar sarietan. Zuzendari onenaren saria be jaso eban 2015eko Sundanceko zinemaldian.

ZERTU

Zertu Kultur
Elkartea
barriztau da

Erredakzioa

Zezeilaren 26ko arrastian Igorreko Kultura Etxean eginiko batzar orokorrean BEGITU aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Alkarteko zuzendaritza batzordeak 2015eko kudeaketa txostena aurkezteaz gain 2016rako asmo zerrendea ago batez onartu eban. Datozan hilabete-tarako bestelako egitasmoen artean Zertu Alkarteko aldizkariaren funtzionamentuaren jarraipena hobetzen segiduko dau. Horretarako, zuzendaritza batzordea bera sendotuko dau eta proiektuak behar dituan diru-iturriak indartuten ahaleginduko da, publizidadea, hitzamenak eta Begitu-lagun harpidetza gehiagoren bidez. Era berean, BEGITU aldizkariaren presentzia, bai kalean, bai jentartean, ikusgarriago egiteko ekintzak (azokak, argitalpenak, erakusketak...)



egiten jarraituko dau. Bestalde, Zertu Kultur Alkarteko eskerrak emon gura deutsez urteetan zuzendaritza batzordean behar txukuna egin daben Oihane Barrenetxea, Aitor Erdozia eta Jürgen Lange kideak eta ondo etorria emon deutse kargu barriak. Holan, aurrerantzean Zertuko Alkarteko presidentea Irene Bilbao izango da, Alvaro Rabelli presidenteordea eta Beñat Iriondo diruzaina. Datozen asteetan be apurka-apurka batzordekide barri gehiago hasiko dira batzordean. Horretarako, alkarteko gogorazoten deutse Begitu-lagun guztiak batzordekideak izan daitezke eta parte hartzean animetan dauz danon laguntza behar dauan proiektu hau aurrera eramateko.

IPUIN MUSIKATUA

Arratiako Musika Eskolearen ikuskizuna Igorreko Lasarte Aretoan martiaren 12an

Erredakzioa

Hilaren 12an, Arratiako Musika Eskolako 130 ikaslek, irakasleen orkes-

trak lagunduta, 1960 eta 1970eko hamarkadetako abesti ezagunetan oinarrituko ikuskizuna eskeiniko dabe Igorreko Lasarte Aretoan.

Saio bi egongo dira. Arrastiko bostetan bata eta zazpiretan bestea. Bostetako saioan, Dima, Artea, Areatza eta Zeberioko ikasleak hartuko dabe parte. Zazpiretakoan, barriz, Bedia, Lemoa eta Igorrekoak. Saio bietan, Arratiako Musika Eskolako Kirikinausi eta Zornotzako Kantalai koruak egongo dira.

Aurtengoa, hamazazpigarren "Ipuin musikatu" izango da. Arratiako Musika Eskoleak urtean-urtean egiten dau ekintza hau eta Lasarte Aretoa bete egiten da saio bietan.



LEHIAKETEAK

Umeentzako I. Ipuin Lehiaketea

Erredakzioa

Areatzako Udalak I. Ipuin Lehiaketea antolatu dau. Gaia librea da, ipuinak euskeraz egon behar dira eta martiaren 11ra arte entregatu daitezke lanak ludotekan edo Gaztelekuan. Sariak, kategoriaren arabera, liburu sortak, MP4a eta liburu elektronikoa izango dira. Sari banaketan martiaren 16an izango da arrastian Udala Aretoan.

Ipuinak, batuaz zein bizkaieraz egon behar dira eta 100 berba euki behar dabez gitxienez. Bost

kategoria dagoz, lehenengo kategorian 3. eta 4. mailakoak hartuko dabe parte, bigarrenen 5 eta 6. mailakoak, hirugarrenean DBH1 eta DBH2koak, laugarrenean DBH3 eta DBH4koak eta bosgarren kategorian atzenik Batxilergo 1. maila eta bigarrenekoak.

Egileak hiru kopia aurkeztu behar ditu eta lanak ordenagailuz idatzita egongo dira. Idazlearen izena aldeztatik ez jakiteko, ipuinean ez da ez izen-abizenik ez eta egilea identifiketako ezer idatzi behar. Idazlana gutunazal txiki bateri erantsita entre-

gauko da. Gutunazalaren barruan parte hartzailearen izen-abizenak, helbidea, telefono zenbakia, jaioteguna eta ikasmila agertuko dira. Kanpoan, barriz, jagokan kategoria baino ez da idatzi behar.

Ipuinak ludotekan entregauko dira, asteleheneetik barikura 16:30etik 19:30era, edo Gaztelekuan, bariku eta zapatuetan 19:00etatik 22:00etara. Lan guztiak Areatzako Udaleko webgunean eta liburutegian baten argitaratuko dira.

Sariak

Lehenengo kategoriako irabazleak eta bigarrenekoak liburu sorta bat eroango dabe, 3. eta 4. kategoriakoak MP4a eta bosgarrenekoak E-Book-a.

ERAKUSKETEAK

Andren ikuspegia jasoten dauan erakusketa kolektiboa Igorren



durruga artista eta kazetariak jardungo dau aurkezle lanetan eta Frida Kahloren *Broken Column* izeneko koadroan oinarritutako performance batez hasiko da. Ondoren, igaz hildako Rosa Calzada taldekidearen omenezko poema bat irakurriko dau Maite Artabek. Gero, Ines Medina mintegiko irakasle eta erakusketaren komisarioak hartuko dau berbea, aurtengo erakusketaren espiritua komentetako. Azkenik, kopautxo egongo da hurreratzaren diranentzat.

Rosa Calzada gogoan

Aurtengoa Ines Medinaren Igorren emondako zortzigarren mintegia eta bosgarren erakusketea izango da. Taldean, partaide barriak dagoz urtero, baina beste batzuek hasikeratik parte hartu dabe mintegi honeetan eta Arratiako andra artisten alkarte bat be osatu dabe. Hasikeratik egon dan horreetako bat Rosa Calzada zan, igaz hil zana.

Rosa Calzadaren lanbidea pintorea zan, Getxo antzezaleak alkartearen fundatzaileetako izan zan eta bertan 30 urtez egon zan eskolak emoten. Erakusketa asko egin ebazan Euskal Herrian eta Euskal Herrikan kanpo. Arratian be, Igorreko Kultur Etxean eta Areatzako Hotel Bainuetxean erakutsi ebazan bere lanak.

Erredakzioa

Hamalau artista plastikoren lanak batzean dira *Ikuspegi femeni-noak etorkizuna eraikitzen* izeneko erakusketan. Egileak, Ana Rosa Arroyo, Ana Marin, Ane Undurruga, Arantza Pineda, Encarna Cepeda, Feli Agirre, Maite Artabe, Marian Daubagna, Marisol Calzada, Maritere Bilbao, Maritere Goti, Maxima Kerr, Miren Bilbao eta Tere Uribe-Etxebarria dira Ines Medinaren mintegian parte hartu dabena. Erakusketea martiaren 5etik 31ra arte egongo da Igorreko Kultur Etxeko erakusketa aretoan.

Martiaren 5ean, izango da inaugurazio ekitaldia. Ane Un-

DUNBA

Zulaibarren zer egin daiket?

Zulaibar Lanbide Ikastegia

Lanbide Heziketa Dual-a, eta gainera, HIRU+= Lanbide Heziketa Dual + Zentro teknologikoetan egonaldiak (Tecnalia, IK4-Azterlan y IK4-Lortek).

Datorren ikasturtean Instalazio Elektriko eta Automatikoak Zikloan ETHAZI (Etekin Handiko Zikloak) metodologiagaz egingo dogu lan. Irakasgaien edukiak, erronka desbardin bidez, ikasleak lan taldean landuko ditue. Ikasleak berak hartuko dau protagonismoa. Metodologia honen bidez, POI "Proiektuetan Oinarritutako Ikasketza" oinarri hartuta, zeharkako gaitasunak, besteak beste bizitza osoan ikasteko gaitasunak, gaitasun sozialak, pentsamentu kritiko

eta barrizailerako gaitasunak eta IKT gaitasunak, be landuko doguz sakon.

Badago praktikarik?

Erasmus + atzerrian eta enpresakaz proiektu errealak daukaguz. Aurten Mekanizatuko hiru ikasle Italiara joango dira Ziklo amaierako praktikak egitera.

Horrek itxura ona dauka, gero!

Automozinoan be espezializatu zaitezke (Gestamp eta Batz) eta barriz teknologiko proiektuetan be parte hartu daitezke.

Formula Student-en be bagaguz; Unibersidadeko Ingeniariako ikasleak egiten dabizan kotxe elektriko batentzat Zulaibarreko ikasleak piezak egiten ditue.



Lanbide heziketako beste ikastetxe batzuk be alkarlanean gagoz; aurten latak txikituko makina bat egin behar dogu.

Beken inguruan, zer?

Tituladuentzat Global Training, lehen aukera, Erasmus+ eta 30 urtetik gorako ikasleentzat Formazio Dual-a beka bidez bideratu daitezke.

Eta Ingelesa, Zer?

Zikloetan zeharka ingelesa sar-tzean hasi gara eta urte pare baten zikloetan hiru hizkuntzak erabiliko doguz (euskerea, ingelesa eta gaz-

telerea).

Eta gero unibersidadera joan gura badozu?

Bai, aukera hori badago eta gainera irakasgai ugari konbalidatu daitezke. Lanbide heziketatik unibersidadera doazen ikasleak oso prestatuta joaten dira.

Eta ziklo barririk egongo da?

Bai, ziklo bariak eskatuta daukaguz, erdi mailan Mendekotasun egoeran dagozan personentzako arreta zikloa eta goi mailan fabrikazio mekanikoko diseinu zikloa berreskuratuko dogu.

2020-02-22an zelango eskolea izango da Zulaibar?

Ziklo guztiak ETHAZI (Etekin Handiko Zikloak) programeagaz izango doguz. Honeguz, erronketan oinarritutako ikasketak kolaboratiboa landuko dabe. Ikasleak IKT aplikatuak, sormen teknika, alkarlaneko ikasketak, simulazioak, kasuak aztertzea, analisisa, PBL eta gaitasunen bidezko ebaluazioa



era berezian landuko dabe.

Arratiako enpresentzat erreferente izan behar dogu, alkarlanean proiektu barrizailerakaz, enpresa txikiak lagunduten, teknologia barriak partekatu behar doguz, Arratiakoak Arratiarako egin behar doguz.

Mundu globalizatu honetara moldatu behar gara, beti be Arratia eskualdeko esentzia galdu barik. Laster jubilatuko egongo dira eta lanean gagozanak gitxi izango gara, eta oso lehiakor izan behar gara, prestakuntza ona izatea ezinbestekoa da, sormena, talde lana, atzerriko hizkuntzak menperatu behar dira, barrizailerak izan behar gara.

AGENDEA

MARTIAK 1
BEDIA

16:30etik 19:30era, hilaren 18ra arte, Txiki-Txokorako, Udalekuetarako eta Bediako Uda Gaztearako izen emotea. Liburutegian.

IGORRE

Martiaren 15era arte, Imsersoaren tratamendu eta baldintzak Fiteroko bainuetxera joateko izena emoteko epea. Jubiladuen Txokoa.

LEMOA

Hilaren 7ra arte, puntu egin, kakoratz lana, soinekogintza, konponketa orokorrak eta eskualdeko jantziak egiteko ikastaroan izena emoteko epea zabalik. Udaleko Kultura Zerbitzuan. Ikastaroa martiaren 8tik bagilera arte izango da. Martitzenetan 10:00etatik 12:00etara.

Hilaren 4ra arte, andren autodefensa tailerretako izen emotea kiroldegian.

MARTIAK 2
ZEANURI

Josteko ikastaroan parte hartzeako izena emoteko azken eguna. Udaletxean.

MARTIAK 3
AREATZA

19:00etan, zineforuma *Encuentro en París* (Richard Quine, 1963) Jose Angel Rebolledogaz.

ARTEA

16:30ean, Gurutze Goniak antolatuta Interneten erabilera ikastaroa jubiladu eta pesinodunentzat.

IGORRE

20:00etan, Zinegoak Bilboko Gaylesbotrans 13. Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdiko filmak. *Garelako, Aitona Mantangoria, À qui la faute?, Chance, De que lado me alhas?* eta *Betty* film laburrak. Lasarte Aretoan.

ZEANURI

17:30ean, josteko ikastaroa hasiko da.

19:00etan, *Gure genealogia feministak Euskal Herriko Mugimendu Feministaren kronika bat* liburuen aurkezpena Emagin taldearen eskutik.

MARTIAK 4
BEDIA

18:15ean, Ganguren Mendi Taldeak antolatuta,

hilaren 6ra arte, urtekera Baqueira-Beretera eskiatzera. Udaletxe ondoan.

DIMA

19:00etan, Txumuluxeta Kultur eta Kirol alkarteak antolatuta, Manu Aurrekoetxearen berbaldia "Gerra zibila Diman: ezagutu daigun" Elexalde lokaletan.

19:30ean, "Etxean gura doguz" presoen aldeko konzentrazioa. Plazan.

IGORRE

18:00etan, Eidabe taldeak umeentzako antzerkia *Futbolariak eta printzesak*. Lasarte Aretoan.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak, hilaren 6ra arte, eskiatzeko urtekera. Luz Ardiden.

22:30ean, Lemoako Gazte Asanbladak antolatuta, Izare, poesia akustikoa; 23:30ean Vinagre de moderna taldearen kontzertua Karabie Gaztebean.

ZEANURI

Hilaren 12ra arte, *Gure andrak memorian* argazki erakusketa Kultur Etxeko gela handian. 19:00etan inaugurazioa. Erakusketa zapatu eta domeketan zabalik goiz eta arratsiz eta astebarruan 17:00etatik 19:00etara.

ZEBERIO

19:30ean, Munduko Emakumeak alkartearen berbaldia. Plazako Ermitan.

MARTIAK 5

AREATZA

20:00etan, Mota Blues taldearen kontzertua The Quiet Comer-en.

ARTEA

10:00etan Abian Kultur Dinamika saioa.

IGORRE

18:00etan, *Ikuspegi femeninoak etorkizuna eraikitzen* erakusketearen inaugurazio ekitaldia. Erakusketa hilaren 31ra arte Kultur Etxeko erakusketa aretoan.

20:00etan, Macho Maris-en *Ezin gizonago diren Markus eta Juanmanoloren showa*. Lasarte Aretoan.

22:00etan, zinea *Sufragistas*. Lasarte Aretoan.

LEMOA

11:00etatik 12:30era, andrentzako autodefensa tailerra Kiroldegian.

MARTIAK 6
ARANTZAZU

10:00etan, Arratiako Andren VI. Mendi Ibilaldia.

Arantzazuko plazan. Ondoren ondoetoria plazan eta kopautxo Monteronean.

AREATZA

Corbeia Parke Naturalak antolatuta, Ginkana didaktikoa Saldropon.

08:00etan, Lamino Mendi Taldearen urtekera Legutio-Obarreta Kobak-Albertia (867m.)-Capi Koba-Legutio. 10,2kilometro 867 metro desnibel. Eleiz portalean.

IGORRE

10:30ean, Zugatz Eguna. Errugbi zelaiaren inguruan eta Bizkaiko etxebizitzaren eremuan zugatzak landatu; 12:30ean barauskarria.

17:00etan, zinea *Pesadillas*; 19:30ean, zinea *Sufragistas*. Lasarte Aretoan.

ZEBERIO

11:30etik 13:30era, Andrentzako Autodefensa ikastaroa. Eskola zaharlean.

19:30ean, zinea *El futuro es mujer*. Plazako ermitan.

MARTIAK 7
LEMOA

18:00etan, Yolanda Arietaren berbaldia "Argiaren alaba: txango bat denboran". Liburutegian.

ZEANURI

12:00etan, ipuin kontalariak eskolan.

MARTIAK 8
ARANTZAZU

12:00etan, konzentrazioa.

AREATZA

18:30ean, AKKBk antolatuta Bookcrossing liburu bilketea. Udaletxeko hirugarren solairuko gelan.

ARTEA

18:00etan, konzentrazioa.

DIMA

11:00etatik 13:00etara eta hilaren 10era arte, telefono mugikorren erabilerearen gaineko ikastaroa jubiladu eta pesinodunentzat.

17:00etan, *Dima eta bardintasuna* argazki proiektzioa. Liburutegian.

IGORRE

19:00etan, Emakumeen Nazioarteko Eguneko Arratia mailako konzentrazioa.

ZEANURI

12:00etan, ipuin kontalariak eskolan.

17:00etan, plazako zugatzak apaindu andren nazioarteko egunagaz lotutako esaldi, olerki, berba eta abarrakaz.

ZEBERIO

21:00etan, andren arteko afaria. Batzokian.

MARTIAK 9
LEMOA

Hilaren 18ra arte, Ortua balkoian ikastaroan izena emoteko epea zabalik Udaleko Kultura Zerbitzuan. Ikastaroa astelehenera izango da apirilaren 4tik 18ra 18:30etik 20:30era.

MARTIAK 10
ARANTZAZU

17:00etan, Bilboko museo etnografikora bisita.

AREATZA

19:00etan, film laburrak eta solasaldia. *Cordelias* (zuz.: Gracia Querejeta) eta *Y otro año perdices* (zuz.: Marta Diaz de Lope). Udaletxean.

AREATZA

18:30ean, AKKBk antolatuta Bookcrossing liburu bilketea. Udaletxeko hirugarren solairuko gelan.

ARTEA

16:30ean, Gurutze Goniak antolatuta Interneten erabilera ikastaroa jubiladu eta pesinodunentzat.

IGORRE

20:00etan, Zinegoak Bilboko Gaylesbotrans 13. Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdiko filmak. *Sangailles Vasara* filma. Lasarte Aretoan.

ZEANURI

17:00etan, Globoflexia tailerra "Familiak Olgetan" Ludotekan. Izena emoteko epea martiaren 3ra arte.

MARTIAK 11

ARTEA

AKKTK antolatuta, 13ra arte, eski urtekera Ezkaraira.

BEDIA

17:00etan, "Sormening familiagaz". Familiak alkarregaz margoitu, olgau, jantzan egin... Ludotekan.

18:30ean, zineforuma ludotekan.

DIMA

19:30ean, *Gure etxe bakarra* antzerkia. Gaztebean.

IGORRE

20:00etan, Laburbira euskerazko film laburrak Lasarte Aretoan.

20:00etan, Igorre kantari kantu-pote. Batzokitik hasita.

20:30ean, McOnak eta Fiachras taldeen kontzertuak Kiñu Gaztebean.

ZEBERIO

Austamir antolatuta, "Indarkeria matxista lantzen" berbaldia. Plazako Ermitan.

MARTIAK 12

AREATZA

19:00etan, Laburbira euskerazko film laburrak Udaletxeko Areto Nagusian.

20:00etan, Deiedra taldearen kontzertua The Quiet Comer-en. St. Patrick's Day.

IGORRE

TTIPren kontrako bizikleta martxea. 10:00etan Bedia; 10:30ean Lemoa; 11:15ean, Dima; 12:00etan Igorre; 12:15ean Arantzazu; 12:30ean Artea; 13:00etan Areatza; 13:30ean Zeanuri; 14:30ean Igorre. 15:00etan TTIP Ez bazkaria; 16:30ean, bideo emonaldia. *Zer da TTIPa, TTIP 2035: Una odisea para las mujeres* eta *TTIP: El campo cerrado por defunción*. 17:30ean Kantu Bingoa Kiñu Gaztebean; 19:00etan Poteoa.

17:00etan eta 19:00etan, Arratiako Musika Eskolak "Ipuin musikatu" Lasarte Aretoan.

22:00etan, zinea *Renacido*. Lasarte Aretoan.

LEMOA

Ganzabaleko Oroitze Eguna. Urtemondo (791 m.).

UBIDE

Amexier Mendi Taldea Magalarte Lezamako bakolin upategira eta Zeraingo Oiharte sagardotegira.

ZEBERIO

Gazte Asanbladearen aurkezpen jaia. 14:00etan, triki-poteoa; 15:00etan, bazkaria eta aurkezpena eskola zaharlean; 18:00etan, tailerra erropen birziklapena ermita zaharlean; 19:30ean, film laburra *Egun on, Printzesa!*; 20:00etan, Patx and Run, Izare, Habemus Papam, Matarra eta Perros con asma taldeen kontzertuak plazan. Ostein, Pantxo DJ.

MARTIAK 13

AREATZA

Corbeia Parke Naturalak antolatuta, Jon Etxebarria eta Puy Arrietaren ardi ustiapenari bisita.

ARTEA

17:00etan, Areatzako Emakumeen Foroak egindako Areatzako andren memoria jasoten dauan dokumentala ikusi eta ostein, bertan agertzen diran batzuk solasaldia.

IGORRE

11:00etatik 15:00etara Ezu Change Kiñu Gaztebean.

17:00etan, zinea *The Snow Queen* (euskeraz); 19:30ean, zinea *Renacido*. Lasarte Aretoan.

ZEBERIO

Austamir Mendi Taldeak urtekera Malkorra-Pinpil. 11:30etik 13:30era, Andrentzako Autodefensa ikastaroa. Eskola zaharlean.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

SALGAI

Relax modua daukien narruzko sofa eta besaulkia saltzean doguz. Deitu 653 727 047 telefonora.

BIZIKLETEA SALGAI

Focus Black Forest bizikletea salgai. Urkulea: Rock Shox Recon Silver RL 100 mm. Aldagailu eta biela: Shimano Deore XT. Osagaiak: Concept SL. Jantak: DT Swiss. Gurpilak: Mountain King. Barri-barria. 600 euro. 688 602 516 (Mikel).

DANERIK

APARKALEKU ITXIA

Karabanak, autokarabanak... gordetzeko aparkaleku itxia, pabilioi baten barruan. Plaza zabalak, zenbatuak, bakotxa aseguru eta alarmeagaz. Ur lohiak garbitzeko komuna. Arratian. 671 549 015 (Jon).
ZERAMIKA IKASTAROA
Zeramika ikastaroaren hasikerea urri bigarrean! Astean ordu biko klaseak, arrastietan. Interesautaz bazagoz, animau eta deitu 615 731 182 telefonora (Saioa).

BEHAR BILA

Etxeko lanak egiten dodaz, 08:30etik 16:00ak arte. Kobeduna. Dimoztarra. Telefonoa 634 438 725.

BEHAR BILA

Delineazio lanak egiten dodaz. CAFen esperientziaduna. Ingeniaria. Dima. Telefonoa 635 207 386.

BAZKIDE BILA

Arratiako euskerazko aldizkariak bazkideak behar ditu. Interesatuak 649 979 115 telefonora deitu.

PARKING PARTZELA ALOKAIURAN

Igorren, Lehendakari Agirre kalean, parking partzela bi alokairuan. 30€ bakotzak. 659 395 911.


Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Futbolariak eta printzesak antzezlanerako.

Eneko Iza (Igorre)
Beatriz Arza (Igorre)



Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Ezin gizonagoak diren Markus eta Juanmanoloren showa antzezlanerako.

Amaia Astondoa (Areatza)
Aritz Undurraga (Lemoa)




Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 13 urte eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Haizetea. 2.- Boroa. Pilari.
3.- Deitura. 4.- Birritan, dardaratzearen onomatopeia. Jazoera, gertaera.
5.- Einstenioa. Fosforo. Iridioa.
6.- Berba alkarketan, ate. Garau.
7.- Amu egile. 8.- Punta bako ote-mota. Bokala. 9.- Umeske, emari.

GOITIK BEHERA

1.- Lasaitasuna. Osmioa.
2.- Konsonantea. Apaindu. 3.- Basati. Loaldi. 4.- Haga, habe. Haur.
5.- Azalera. Gizonezkoen izena.
6.- Zintzilik. Bokala. 7.- Galdera marka. Andrazkoen izena.



Topau Olinpiadak ospatu diran Europako zazpi uriren izenak.

S	A	N	K	O	I	F	E	D	E
H	A	I	T	S	O	N	O	D	O
A	R	M	U	N	I	C	H	I	S
N	E	P	A	L	R	E	B	M	T
G	A	L	E	Z	O	L	P	A	I
O	N	L	O	N	D	R	E	S	B
I	O	S	L	U	A	M	S	S	E
M	L	I	M	E	K	E	T	I	G
A	E	D	I	N	R	R	O	R	A
I	Z	E	B	E	T	R	O	A	L
E	T	I	B	O	L	O	N	P	E
U	R	N	I	E	T	M	I	A	N
T	A	I	G	U	R	A	K	I	R
E	B	I	K	N	I	S	L	E	H
S	O	R	I	A	B	E	R	U	L

AKI MI KO

Aitzi ziber



umean moda
SEM
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa. 94 631 92 96 • seinmoda@hotmail.com

BIZARGINAK
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu
Bixarra egin eta txukunduten dogu
Elexalde, 20 Rober ☎ 630 743 543
48.140 Igorre Manuel ☎ 661 848 793

AKEITEGIA
GAY & LORA
IGORRE

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

KIRRU ILEAPANDEGIA
SOLARIUM
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 beja - 48140 IGORRE (Bizkaia)
☎ 94 631 92 00

GARANTXE Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ
ZEIN ERDARAZ
Balonak: A1, A, B77, #
Lehendakari Agirre 31
Tfnoa: 94 673 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@euskalnet.net

ASEGURUAK: AUTOAK, ETXEBIZITZAK, DENDAK, ISTRIPUAK, BIZITZA...
ZUZENBIDE
ABOKATUAK: ZUZ. ZIBILA, KONTSUMO ZUZ., ADMINISTRAZIO ZUZ., INGURUGIRO ZUZ.
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA, ZERGAK, KONTABILITATEA
Tf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a ☎ 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia ☎ 609-79-49-54

Dia %
PEDRO AUTOSERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

Pinturas Aratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

ARRATIA AUTOESKOLA
karneta euskaraz zein erdaraz
Gorbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefona 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 83
e-por: urrozul@euskalnet.net

JOSU FEIJOO

"Gaixotasuna ez da atxakia"

Josu Feijoo astronauta da. Munduan 557 astronauta dagoz eta bera da horetako bat. Diabetikoa bada, munduko astronauta diabetiko bakarra. Ezinezkoak dirudien gauza asko egin ditu Josu Feijoo Gasteizkoak. Poloetan egon da eta kontinente bakoitzeko mendirik altuenak zapaldu ditu. Orain espaziorako biaje baterako prestatzen dabil. Han, diabetesa sendatu ahal izango dauan botika bat probauko dau.

Arteko eskolan egon zan Feijoo, umeai bere astronauta bizitza eta lanbidearen barri emoten eta unibersoaren gainean berba egiten.

Erredakzioa

Sasoi baten ume guztiak gura eben astronauta izan, munduan sano gitxik bete dabe amets hori. Edonork ezin dau. Ze ezaugarri izan behar ditu persona batek astronauta izateko?

Astronauta izateko 110dik gorako adimen-koizientea behar da, jente arruntaren batz bestekoa 74-76 ingurukoa izaten da. Eta enpatia gitxi euki behar dau astronauteak, buru hotza eta oso-oso orekatuta. Astronauten beharraren % 99 jentearen onurarako da. Triste edo pozik egoteak ezin dau eraginik euki lan horretan. Ezin da akats bat egin bikotekideak itxi zaitualako berbarako. *Failure is not an option.* Porrota ez da aukerea.

Ingeniaritza pare bat ikasi behar dira eta nota onak atera, bikain atara behar da. Alemaniako ESAn, Europako Espazio Agentzian sartzea da hurrengo pausua.

Astronauta ikasketak 5 milioe euro inguru balio dabe.

Normalean ia ezinezkoa bada, diabetesak ez eban la-gunduko.

Ez, gehiago demostrau behar da, baina gaixotasuna ez da atxakia. Ez dago atxakiarik. Oso proba gogorak egin behar dira astronauta izateko; horretako bat, zentrifugatzailean sartzea deitzean jakona da. Jente gehienak konortea galtzean dau bertan eta konortea galtzean dabenak ezin dira astronauta izan. Astronautak 2 edo 3 bider egin behar izaten dabe proba hori, baina nik 15 bider

egin behar izan dot diabetikoa nazalako.

Egunean lau bider sartu behar izaten dot insulinea.

Zelangoak dira entrenametuak NASAn eta Yuri Gagarin zentruan?

Entrenamentuen % 90 teoria da: Matematikak eta Fisika. Flotagarritasunarena oso froga dibertigarria da. Beste proba bat ur azpian, 14 metrora egiten da. Lan bat egin behar da, eta horretarako ordu bi emoten dabez. Nik 29 minututan egin eban.

Aprilaren 7tik 10era, Yuri Gagarin Cosmonaut Training Centre-n egongo naz entrenetan biaje baterako.

Espaziorako biaje batera joateko prestatzen zabilz aspaldi, telemedikuntzako software barria probetako ezta?

Bai. Biajearen helburu nagusia, umeen diabetesa sendatzea da. Espazioan botika bat probauko dot Lurrean debekatuta dagoana zelula-amak erabilten ditualako. Zazpi personatik bat diabetikoa da. Beste helburu bat da gizartea konbenzidutea diabetikoa ez dala baztertu behar.

2009an egin behar zan biajea baina atzeratu egin da. Espaziontzi pribadu baten izango da,

"Enpatia gitxi euki behar dau astronauteak, buru hotza eta oso-oso orekatua. Gure beharraren % 99 jentearen onurarako da"



USS Unity Virgin Galactic espaziontziaren. Igaz, urri bigarrenaren 30ean, komandanteak txarto konfiguratu eban eta lehertu egin zan ontzia eta barriro be atzeratu behar izan dogu hori biajea. Komandantea hil egin zan. Biajearen aberats bi, komandante bi eta ingeniari pare bat izango gara.

Espazioan egonda zagoz eta Gasteizko teleskopio handiena daukazu. Zelangoa da unibersoa?

Unibersoaren % 5 inguru ikusi dogu, 400.000 milioe galaxia. Galaxia bakoitzean 250.000 milioe eguzki dagoz. Gure galaxia unibersoaren bazter baten dago.

Unibersoa marroi kolorekoa da eta meloi formea dauka. Gehien dagoan gasa nitrogenoa da eta tenperatura -273°C edo 0 absolutua.

Big Bang-a orain dala 14.000

milioe urte gertatu zan, baina unibersoaren tamaina 94.000 milioe argi-urte da eta zabaltzen doa abiadura handiz. Big-Bang-aren ostean hainbeste partikula egon zan, ze tenperatureak gora egin eta eztrandak gertatu ziran. Parte bi ditu, materia eta antimateria eta gu materiaren partean bizi gara.

Zer esango zeunskio astronauta izan gura dauan ume bateri?

Gauzak lortzeako onenakaz inguratu behar dala. Gehiago dakianari egin behar jakola kasu beti eta lan protokolo bat jarraitu. Gainera, helburu bat lortzeako oso argi euki behar dala helburua, zalantzak daukiezanak ez dabela arrakastarik izaten. Bere buruarengan konfindantza izateko be esango neuskio.

www.alkizabal.net
alkizabal@alkizabal.net
Zabalik 07:00 - 19:00

ALKIZABAL

Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua

BOLUNBURU POLIGONOA
Amorebieta-Lemoa bidea
Tel. 94 631 44 06. Faxe. 94 631 20 26
48330 Lemoa (Bizkaia)



KÄRCHER
Banatzaile ofiziala

















• Zuk behar duzuna daukagu, galdetu konpromiso gabe.
• Garraio zerbitzua.